

# Euskararen garrantzia diskurtso abertzalean: ardatz ala osagarri?

Onintza Odriozola Irizar eta Julen Zabalo Bilbao  
EHUko irakasleak (EHU/UPV)

50eko hamarkadan Euskal Herrian ernatzen hasi zen diskurtso abertzaleak, arrazaren ordean, hizkuntza jo zuen naziotasunaren faktore nagusi. Testuinguruaren aldaketarekin, ordea, 80ko hamarkadan sektore abertzale batzuek zalantza jarri zuten teorizazio hura: hartara, euskarak abertzaleak kohesionatzeko eta kide berriak erakartzeko duen gaitasuna kolokan jartzen hasi ziren gero eta gehiago. Aldi berean, joera hark kezka sortu zuen abertzaleen barneko sektore euskaltzaleenetan: euskara desagertzeko arriskuaren aurrean, hizkuntzarekiko konpromiso falta leporatu zioten diskurtso abertzaleari. Euskararen garrantzia azpimarratu nahi duten iritzi-joera horiek islatuko ditugu artikulu honetan.

GAKO-HITZAK: Abertzaletasuna · Euskara · Naziotasuna · Diskurtsoa.

## The importance of the Basque language in the Basque nationalism's discourse: central or complementary concept?

The revolutionary Basque nationalism's discourse born in the 50s recognized language, instead of race, as the first factor of nationality. With the change of context, however, some Basque nationalists questioned that theory in the 80s: the capacity of the Basque language to unite the Basque nationalist community and to attract new members was questioned more and more. At the same time, that trend created concern in some nationalist sectors (the most pro Basque language): in face of *Euskara's* extinction, the nationalist movement was accused of a lack of commitment to the language. This article reflects these trends that focus on the importance of the Basque language.

KEY WORDS: Basque nationalism · Basque language · Nationality · Discourse.

*Jasotze-data:* 2013-09-05. *Onartze-data:* 2014-02-15

## 1. Sarrera

Ez dago ezer monolitikorik edo estatikorik nazionalismoetan. Ideologia politiko gisa definituko bagenu edo, bestela, edo aurrekoarekin batera, kultura publiko gisa, edo hizkuntza eta sinbolismo gisa hartuko bagenu, definizioak definizio, aldizka, aldaketa-prozesuak jasaten dituzte; hain zuzen ere, unean uneko testuingurura egokitu ahal izateko. Euskal Herrira etorrira, abertzaletasuna hartuko bagenu aztergai, konturatuko ginatke nazioaren gaineko diskurtsoa aldatuz joan dela hemen ere, testuinguruak hala eskatuta. Abertzaletasunaren bilakaeran izan den diskurtso-aldaketarik handiena aukeratzen jarrita, beharbada ados jarriko ginatke, arrazan oinarritutako diskurtsoaren ondoan hizkuntzan oinarritutakoa nagusitu izana dugula handiena ez bada handienetakoa. Edozein eratar, naziokide dituen herritarrak hainbat ideiarengatik inguruan biltzen ahalegintzen da, oro har, nazionalismoa; horretarako, bitarteko politikoak eta arrazionalak erabil ditzake, edo identitatearen eta sinboloen eremukoetara jo dezake gehiago. Jakina da, bitartekoei gagozkiela, hizkuntzak oinarritzako funtzioa bete duela abertzaletasunean. Dena den, azken urteotan, hainbat sektore abertzalek gero eta gehiago jarri du zalantzan euskararen egoeran den hizkuntza batek XXI. mendeko estaturik gabeko nazionalismo batean herritarrak biltzeko izan lezakeen gaitasuna.

Horixe da, hain justu, artikulua gaia: abertzaletasunak nortasun-ardatz gisa hizkuntza hartu dueneko zikloa aztertzea. 50eko hamarkadan Euskal Herrian ernatzen hasi zen diskurtso abertzaleak arrazaren lekuan hizkuntza jarri zuenetik gaur arte, hain zuzen ere, abertzaleen barneko zenbait sektore haren egokitasuna zalantzan jartzen hasi den garaiotara arte. Zalantzan jartze horrek tirabira ekarri du; izan ere, kritikak kritika, beste sektore batzuk hizkuntza nortasun-emaile dela defendatzen duen diskurtsoari eusten ahalegindu dira. Beraz, batzuentzat, behinola naziokideak elkartzeko tresna gisa jardun zuen hizkuntzak garrantzia galdu du zeregin horretarako (ez sinbolikorako); eta aldiz, beste zenbaitentzat, aldarrikapen nagusi bilakatu da. Are gehiago, azken horientzat helburu politikoekiko autonomia ere hartu du, hainbat kasutan.

Lau ataletan aztertuko dugu hori guztia. Lehendabizikoan, oinarritzako hainbat ideia azalduko dira bai nazionalismoari buruz, baita nazio-sinboloen erabilerari buruz ere. Bigarren atalean abertzaletasunaren ibilbidea aztertu nahi da, laburki, Sabino Aranak dotrina politiko gisa aurkeztu zuenetik 70eko hamarkadara arte; ondoren, hirugarrenean, euskarak sinbolo gisa azken hamarkadotan diskurtso abertzalean izan duen bilakaera aztertuko dugu, baita bilakaera horrek hainbat sektore abertzaletan eragin duen erantzuna ere. Azkeneko atala ondorioei eskainiko diegu.

## 2. Nazionalismoa eta nazio-sinboloak

Nazionalismoek hainbat bitarteko erabiltzen dituzte herritarrak diskurtso nazionalistaren ideietara biltzeko eta, biltzeko ez ezik, denboraren joanean ideia horiekin bat egiten segi dezaten. Nazionalismoak, hortaz, ahal duten neurrian, beren jatorritzako mezua iraunarazten ahalegintzen dira, herritarra harekin identifikatuta senti dadin. Demokraziaren edo nazioaren gisako kontzeptuak abstraktu samarrak gerta litezke aukeran eta, horregatik, edukiz janzten, alegia, beren

muina eta beren zergatia herritarrei gogorarazten saiatzen dira etengabe. Helburu horretan, oso bestelako bitartekoetara jo lezakete naziokideak beren proiektuaren baitan elkartzeko: ospakizun handien bidez egin lezakete, erritualen bidez, edo komunikabideen bitartekotzari esker beren intereseko ideiak etengabe gizarteratzen ahalegin litezke. Horrela egiten dute, ahal duten neurrian, estatu-nazionalismoak eta estaturik gabeko nazionalismoak.

Estatu-nazionalismoak, maiz, nabarmenegiak ez diren bideak hautatzen ditu bere mezua gizarteratzeko, horretarako ahalmena duenez gero. Billig-ek (1995) «eguneroko nazionalismoa» deitu zion horri; izan ere, hain izan daiteke sotila mezua gizarteratzeko modua, ezen, herritarrek nazionalismo horren kontzientziarik ere ez baitute izaten askotan. *Gure* eta *besteen* artean etengabeko bereizketa eginez, herritarrek beren erakunde, kirol, kultura edo bestelako edozein egituraren ordezkariekin bat egin dezaten ahalegintzen da estatu-nazionalismoa, baita lortu ere gehienetan.

Jarduteko era hori eraginkorra suertatu zaio estatu-nazionalismoari kasu gehienetan, betiere, alboan estatuaren izaera zalantzan jartzeko gai izan den beste nazionalismorik izan ez duen bitartean; dela beste estatu baten nazionalismoa, dela estatuaren lurraldearen baitako estaturik gabeko nazionalismo-mugimenduren batena. Azken horrek, aldiz, estatuaren bitarteko eraginkorrik ezean, beste era batean adierazten ditu mugimenduaren ideiak. Herritarrei helburu duen naziotasuna gogorarazteko «eguneroko» tresnak erabil baditzake ere, bere burua nabarmendu behar izaten du gehienetan estaturik gabeko nazionalismoak, denboran irauteko ez ezik, hazteko helburua ere izaten duenez gero. Nolanahi ere, nazionalismoak bere oinarriak eta helburuak berretsi behar izaten ditu aldi oro. Bere lurraldeko herritarren atxikimendua ezinbesteko zaio (inplizitua estatu-nazionalismoaren kasuan, eta esplizitua estaturik gabeko nazionalismoarenean), eta atxikimendu hori lortzeko eta denboran iraunarazteko hainbat bidetara jo dezake, gorago aipatu dugun moduan: bide politikoak eta arrazionalak erabil ditzake, era horretan, herritarrei nazio batu baten abantailak gogorarazten dizkie gehienetan; edo identitatearekin eta sinboloekin lotutako bideak erabil ditzake, alegia, herritarrak naziokide izatearekin harro senti daitezen ahalegintzen da. Azken horretarako, nazioarekiko eta naziokideekiko leialtasuna eragiteko, herritarrak balio, sinbolo eta tradizio batzuetan gizarteratu behar izaten ditu nazionalismoak (ik. besteak beste, Armstrong, 1982; Connor, 1998; Rocher, 1977; Smith, 2000; Todorov, 2010).

Sinboloak belaunaldiz belaunaldi transmititzen dituzte gizataldeek, eta sinboloekin batera, noski, beren esanahi soziala: gizatalde horietako kideek partekatzen dituzten esperientziak eta balioak. Balio horiek, hortaz, belaunaldi arteko ondarea osatzen dutela esan genezake; beste hitz batzuekin esateko, ondare horri talde bateko kideak elkartzeko eta kanpokoekiko bereizteko «esanahiak moldatzen dituen erreperitorio eraginkorra» dei geniezaioke (Smith, 2000: 328-329). Armstrongek, bere aldetik, uste du nazio-identitate modernoak, beste faktore batzuen artean, mitoen eta sinboloen guneek epe luzera izan duten eraginaren ondorioz sortu direla (1982).

Nazionalismoak sinbolo gisa erabil ditzakeen elementuen artean, hizkuntzarena nabarmenduko dugu hemen, abertzaletasunean izan duen eraginagatik.

Eragin hori hizkuntzaren bi dimentsio nagusietan antzeman dezakegu: instrumentalean eta baloratzailan. Dimentsio instrumentalean (hizkuntza komunikazio-tresna gisa hartuta), hizkuntzaren sinbolismoak mezuak igortzeko balio digu eta, aldi berean, sinbolismo horrek berak talde jakin bateko kide izatearen sentimendua indartu dezake gudan. Horrez gain, Tejerinak gogoratzen digu hizkuntzak funtzio politikoa bete duela beti: bai estatu-nazionalismoen nazio-uniformatze prozesuetan, eta bai estaturik gabeko mugimendu nazionalisten susperraldietako aldarrikapenetan ere. Hizkuntzaren dimentsio baloratzailak, bere aldetik, gizarte-eragileek beren hizkuntzarekiko duten sentimendua eta sinesmen multzoa bilduko lituzke; Tejerinak «hizkuntzaren gizarte-irudia» esaten diona, hain justu (ik. Tejerina, 1992).

Azkenik, nazionalismoak erabiltzen dituen sinboloen zilegitasun-mailari buruz zerbait aipatzearen, esan genezake, maila hori diskurtso nazionalistaren zilegitasun-ahalmenaren arabera dela funtsean. Zilegitasunaren ahalmena, dela gizarte-onespena, dela gizarte-sinesgarritasuna, kapital sinbolikoaren jabe izatean datza. Estatu-nazionalismoak biolentzia sinbolikoaren eta biolentzia hori ezkutatze bitartekoen gaineko monopolioa izaten du gehienetan eta, monopolio horri esker, bere diskurtsoa eta sinboloak normalizatzen ditu gizartearen aurrean; *objektiboak* egiten ditu. Estaturik gabeko nazionalismoek, aldiz, ez dute estatuaren monopolio hori izaten (Bourdieu, 1977, 1999).

### 3. Euskal nazioaren gaineko diskurtsoetako sinbolo nagusiak

Gauza jakina da abertzaletasunaren ibilbidean nazioaren gaineko bi ikusmolde izan direla nagusi: arrazan oinarritutakoa, lehendabizikoa, eta XX. mendearen erdialdetik aurrera, hizkuntzan zurkaiztutakoa.

Sabino Aranak XIX. mendearen amaieran abertzaletasunaren dotrina politikoa plazaratu zuenean, bost elementutan oinarritu zuen naziotasuna: arrazan, hizkuntzan, gobernuan eta legeetan, izaeran eta ohituretan, eta nortasun historikoan (*¿Qué somos?* in Arana, 1978: 52). Baina, jakina da, ez zutela garrantzi bera Aranarentzat: arraza jo zuen euskal naziotasunaren oinarritzko elementutzat, «euskal esentzia»ren ezaugarri guztiak barne hartzen zituen kontzeptua baitzen beretzat. Hizkuntzak ere, dena dela, pisu handia zuen Aranarentzat: besteak beste, kanpo-koarekiko ezberdintasun-sentipena indartzen zuelako, eta horrek gizarte-kohesiorako mekanismo eraginkor bihurtzen zuelako bere ustetan. Baina arrazaren mendeko elementutzat hartzen zuen beti hizkuntza (ik. Azurmendi, 1979; Ibero, 1979).

Arana hil ondoren ere, *aranismoaren* jarraitzaile leialenek arrazaren diskurtsoari eutsi zioten. Orduko abertzaletasuna lau haizetara gehien zabaldu zuenetako batek, Iberoko Aita Ebanjelariak, etengabe aipatu zuen arrazaren, odolaren eta jatorriaren garrantzia bere idatzietan (1979). Diskurtso huraxe izan zen nagusi abertzaleen artean 1936ko gerrara arte, nahiz batzuetan euskarari garrantzi gorrena ere aitortu zioten abertzale batzuek: Jose Ariztimuño *Aitzolek*, horien artean.

1936ko gerraren ondoko urteak urte ilunak eta isilak izan ziren abertzaleentzat. Industrializazioak eta, horren ondorioz etorri ziren urbanizazio ikaragarriak eta etorkin-uholde handiek izugarri aldatu zuten Hego Euskal Herriko gizartea eta

ekonomia, Bilbo ingurukoa batez ere. Buruzagi abertzaleak gerra galdu ondoko etsipenak jota zeuden, eta nolabait ere, galduta sentitzen ziren gizartean gertatzen ari ziren aldaketa haien guztien aurrean, zehazki nola jokatu ez zekitela. Horrela, euskara eta euskal nazioa hil edo biziko egoeran sentitzen zutelako kezkatuta, eta buruzagi abertzaleen jarrera pasiboarekin etsita, 50eko hamarkadako gazte abertzale batzuk egoera hura irauli egin behar zutelako hausnartzen hasi ziren. Gazte belaunaldi hark premia larriko bi helburu finkatu zituela esan genezake (Tejerina, 1992: 122): adineko abertzaleen etsipenari eta jarrera pasiboari erantzutea, batetik, eta abertzaletasunaren oinarriak aldatzea, bestetik.

Buruzagi abertzaleen pasibotasunari erantzun nahian, Ekin-ETA taldearen inguruan antolatu ziren, eta frankismoaren aurkako ekintza zuzenaren alde egin zuten, hasieratik beretik. Euskal gizartearen orduko errealitateari hobeto egokituko zitzaion abertzaletasun-eredua zehazte aldera, bestalde, euskal izaeraren berezitasunak bermatu ahal izateko, arraza alboratu, eta beste naziotasun-elementu batzuk nabarmendu zituzten. Ekin-ETAk bere lehendabiziko idatzietan Aranaren arrazaren kontzeptu biologikoa baztertu, eta hizkuntzaren eta kulturaren garrantzia nabarmendu zuen; beste iturri batzuen artean, Krutwigen (1963) teoriek eraginda. Arrazari garrantzia kenduta, eta *zaharren* erlijio-sinesmenetatik neurri batean urrunduta, hizkuntza hartu zuten naziotasun-elementu oinarritzotzat eta, horrela, nazio-elementuetan giltzarri bihurtu zuten (ik. Conversi, 1990).

50eko hamarkadako abertzaletasun iraultzailearentzat, hortaz, euskara bihurtu zen euskal nazioaren sinbolo; eta, neurri handi batean, pixkanaka, baita beste abertzale askorentzat ere. Naziokideak elkartzeko elementu lotzaile gisa ziharduen, batetik, eta, bestetik, frankismo-urteetan pairatu zuen atzerakadak bere dimentsio sinbolikoa indartu zuen euskal gizartean; izan ere, sistema frankistak euskal elementu eta sinbolo oro, eta abertzaleen adierazpen oro zigortzen zuen testuinguru hartan euskararen galtze-prozesuaren gaineko kontzientzia hartu zuten gazte haiek, aurrena, eta abertzale askok, ondoren. Euskara erabiltzea eta ikastea nazioa berreraikitze elementu giltzarri bihurtu zen abertzale askorentzat.

Euskara diskurtso abertzalearen erdigunean jarrita, abertzaleen aldarrikapen nagusietako bat bilakatu zen. Beste eskaera politiko batzuen artean, Euskal Herri euskaldun baten premia nagusitu zen abertzaleen helburuetan; horrela, euskararen balioa handitzeko, herritarrak euskararen alfabetatzeko, eta euskara irakasteko mugimendu zabal bat sortuz joan zen Euskal Herriko hiri eta herrietan 60ko hamarkadatik aurrera (Tejerina, 1992: 134; Zabalo, 2006: 85).

Aurrekaririk gabeko berpizkundea izan zuen euskal kulturak. Euskara suspertzeko ahalegin haren adierazpenik nabarmenena ikastolen mugimenduaren sorrera izan zela esan dezakegu. Euskara hezkuntza-sisteman sartzea ametsa zen abertzale eta euskaltzaleentzat; ikastolen bidez, haurrak euskaraz hezteko eta euskaraz gizarteratzeko (nolabait nazionalizatzeko) aukera ikusten baitzuten. XX. mendearen hasieran saiakeraren bat edo beste izan bazen ere, 1936ko gerrak eskola elebiduna sortzeko eta zabaltzeko ekimen oro zapuztu zuen. Baina guraso askoren ekinaren ekinaz, 1957. urtean egia bihurtu zen ametsa; orduan sortu baitzen gerraondoko lehen ikastola (gai horretaz, ik. Fernandez, 1994). Haurrak euskaraz eskolatzearekin batera, pixkanaka, ugaritu egin ziren helduentzako

euskalduntze- eta alfabetatze-guneak ere. Era berean, euskara batua eta estandarra zehazten hasteko batzarrak egin zituen Euskaltzaindiak; besteak beste, Arantzazukoa. Musikaren eremuan, berriz, beste herri batzuetako ereduari jarraituz, kantagintza berria sortu zuten garaiko musikari gazte batzuek. Horrek guztiak garrantzi ikaragarria izan zuen, noski, euskal kulturaren bilakaeran, baina kultura-ikuspegitik haratago, mugimendu hark guztiak berebiziko zentzu politikoa hartu zuen Euskal Herrian (Gurrutxaga, 1990; Tejerina, 1992: 134).

Abertzaleek euskal kultura biziberritzeko abiatu eta indartu zuten mugimenduak euskararen gizarte-prestigioa handitu egin zuen, eta aldi berean, euskararen eta mugimendu abertzalearen arteko loturak kulturaren eta politikaren batasuna ekarri zuen, ezinbestean<sup>1</sup>. Harreman estu hura hegemoniko bihurtu zen mugimendu abertzalean zein euskaltzelean eta, berehala, bigarren mailan utzi zuen iraganetik zetorren tradizio euskaltzele hutsa, mugimendu abertzalearekiko era autonomoan ziharduena. Pixkanaka, ia desagertu ere egingo zen hizkuntzan oinarritutako tradizio «ez politiko» hura; diogun, bidenabar, joera horren erakuslerik esanguratsuenak Campion, Urkixo eta Azkue izan zirela. Hurrengo atalean aipatuko dugun moduan, aurrerago, testuinguru-aldaketaren ondorioz, mugimendu etnolinguistikaren eta abertzaletasunaren arteko lotura estu hura ahultzen hasi zenean, berriro azaleratu zen, nolabait ere, tradizio euskaltzele ez abertzalea.

#### **4. Hizkuntza-sinboloa eta diskurtso abertzalea aurrez aurre**

Dagoeneko ohartarazi dugun bezala, 50eko eta 70eko hamarkadetan barrena, abertzaletasun iraultzaileak euskal nazioaren gaineko diskurtsoa birdefinitu zuenean, hizkuntzan oinarritu zuen naziotasuna. Eta horrek, era berean, mugimendu abertzalea eta hizkuntza sustatzeko mugimendua estu-estu lotu zituen. Baina 70eko hamarkadaren erdialdean gizarte- eta politika-testuinguruan izan ziren aldaketek eragin handia izan zuten euskararen funtzio komunikatiboan, sinbolikoan eta politikoan, eta, ondorioz, baita bi mugimenduen arteko harremanean ere.

##### **4.1. Hego Euskal Herriko testuinguru-aldaketaren eragina hizkuntza-sinboloan**

1975etik aurrera, Franco diktadorea hil ondoko urteetan, erakundetze-prozesu azkar samarra gertatu zen Hego Euskal Herrian. Eta, ezinbestean, prozesu hark gizarteko eremu guztietan eragin zituen aldaketak; besteak beste, gizarte-eragile askok berriro finkatu behar izan zituen bere diskurtsoa eta joko-eremua.

Zentzu horretan, Perez-Agotek gogorarazten digun bezala, 70eko hamarkadan eta bereziki frankismo ondoko lehen urteetan, abertzaletasuna eta sinbolo abertzaleak eremu publikora aterarazi zituen prozesua abiatu zen Hego Euskal Herrian. Ordura arte, nolabait, abertzaleek eremu pribatuan gordeta izan zuten kontzientzia azalera atera zen gero eta gehiago (1987: 87). Beren aldarrikapen politikoak eta kulturalak gauzatu ahal izateko erakunderik gabe, etengabeko gizarte- eta politika-mobilizazioari esker zabaldu ahal izan zuten kontzientzia

---

1. 1981ean Clark-ek argi ikusi zuen bi eremuen arteko lotura, eta beren arteko mendekotasuna gutxitzeko aholkatu zuen bere obran.

abertzale hura. Euskal identitate kolektiboa hedatzea helburu, euskararen berreskurapena bihurtu zitzairen proiekturik premiazkoena. 70eko hamarkadaren amaieran gertatu zen, hain justu, «euskararen booma» alfabetatze- eta euskalduntze-mugimendua gizartean hedatu izanari esker (Tejerina, 1992: 170).

Baina politika-erakundetze prozesuak aurrera egin ahala, eta alderdi politikoek eta administrazioak politika- eta kultura-jardueran gero eta gehiago esku hartu ahala, aldatu egin zen egoera hura. 1980tik aurrera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako izendatu berria zen Eusko Jaurlaritzak bere egin zuen euskararen berreskurapenaren xedea eta, horretarako, hainbat hizkuntza-politika zehazten eta aplikatzen hasi zen. Eusko Jaurlaritzak hizkuntzaren berreskurapena bere egiteak, hasieran, mesede egin zion mugimendu etnolinguistikoari, eta bere eragina handitzea lortu zuen gizarte-eragile gisa; baina, aldi berean, paradoxikoki, ahulduz joan zen gizartean (Tejerina, 1999: 92).

Mugimendu linguistikoaren higatze-prozesua zergatik gertatu zen azaldu behar bagenu, ezingo genuke kausa bakar bat aipatu: batetik, erakunde politiko autonomikoek hizkuntzaren berreskuratze-prozesuan esku hartu izana aipa genezake; bestetik, euskalduntze-politikak zirela-eta, AEK erreferentzia nagusi zuen mugimendu etnolinguistikoaren eta erakunde politikoak ordezkatzeko zituen HABEren artean izan ziren tirabirak aipa genitzake; hirugarrenik, antolaketaren dibertsifikazioa; mugimendua profesionalizatzea; ekimenak egiteko mugimendu etnolinguistikoak topatzen zituen legezko mugak; Hego Euskal Herri osorako egitasmo komunak antolatzeke oztupoak; instituzionalizatze-prozesuaren gainean abertzaleek zituzten estrategia-desadostasunak zirela medio, mugimenduaren oinarri sozialean izan zen ideologia-zatiketa; faktore soziolinguistikoak, eta abar (Larrinaga, 1996: 166; Tejerina, 1999: 94).

Eusko Jaurlaritzak mugimendu etnolinguistiko instituzionalizatzeko egin zituen saiakeren froga gisa, Joxe Manuel Odriozola soziolinguistaren hitzak ekarriko ditugu hona. Odriozola Gipuzkoako alfabetatze- eta euskalduntze-mugimenduan ibili zen buru-belarri 1974 eta 1980 urte bitartean. Mugimenduaren instituzionalizazio-prozesua negoziatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako hainbat ordezkariarekin bilerak egin zituztela azaltzen digu azpiko hitzotan eta nola ez zuten inolako adostasunik erdietsi:

(...) Eta gero bilera horiek egin ziren eta ez zen, noski, zuk ondo dakizun bezala, inolako lorpenik lortu edo akordiorik iritsi. (...) gogoratzen naiz bizkaitarrak askoz ere gogorragoak zirela instituzionalizazioak ezartzen zituen bide meharrei buruz, esan nahi dut, hipoteka bat, beraien ustez, herri mugimenduaren hipoteka zekarren instituzionalizazio horrek (...). (In Basterretxea *et al.*, 1997: 120-121).

Erakunde autonomikoek, pixkanaka, kulturaren esparruan jardun ahal izateko giza- eta ekonomia-baliabideak eskuratu zituzten; eta, bitartean, gizartea, gizarte-eragileak *impasse* egoera moduko batean murgilduz joan ziren, nolabait ere instituzioen jardunaren zain geratu izan balira bezala. Testuinguru hartan sortu ziren, hain zuzen ere, honako bi erakundeok: EHE (*Euskal Herriaren Euskaraz*, 1979an) eta EKB (*Euskal Kulturaren Batzarrea*, 1983an). Euskararen irakaskuntzan espezializatu zen AEKren osagarri, euskararekiko gizartearen atxikimenduari eta herri-mobilizazioari eusten ahalegindu ziren sorreratik beretik biak. Esan bezala,

hain justu, instituzioen eta herri-mugimenduaren arteko tentsio handieneko urteetan agertu ziren bi erakundeok; eta gatazka-egoera hark, halaberrez, haien bilakaera eta arrakastarako aukera baldintzatu zituen (Amonarriz/Arruti, 1998).

Krisi-egoera hartan, oinarri ideologikoak eta antolaketa-eredua finkatzeari ekin zion mugimendu etnolinguistikoak; eta, horrek, bereziki 90eko hamarkadan, aldarrikapen eta antolaketa-eredu berriak ekarri zituen, hala nola euskararen alde jarduteko esparru autonomo baten eskaera, gizarteko eremu guztietan euskararen alde lan egingo zuten tokiko taldeen sorrera (*Euskara Elkarreak*), alderdikerien salaketa, eta arreta osoa euskararen erabilera jarri zuen diskurtsoa nagusitzea (Larrinaga, 1996: 168).

Ez zen, hala ere, militantismo eragile hutsa. Hainbat filologia-azterketa eginak ziren ordurako, eta euskararen egoera makurra zela-eta, garaiko azterketa soziolinguistikoekiko interesa zabaldu zen mugimendu etnolinguistikoan, beldur baitziren instituzioen jarduna ez ote zen euskararen ezagutzara eta sustapenera mugatuko, eta ez ote zuten hizkuntza-politika eraginkorrik bultzatuko euskara hedatzeko eta haren erabilera handitzeko. Hain zuzen ere, hainbat intelektual euskaltzaleen soziolinguistika-ekarpenetan oinarrituta, huraxe bihurtu zen mugimendu etnolinguistikoaren helburua: euskararen erabilera bultzatzea. Ildo horretan, nabarmentzekoa da euskaltzaleen erreferentzia teoriko eta ideologiko bihurtu zen J. M. Sanchez-Carrion, *Txepetxen Un futuro para nuestro pasado* liburua (1987): euskararen egoera arrazionalizatu zuen, eta hizkuntza berreskuratzeko giltzarri teorikoak eskaini zizkion mugimendu etnolinguistikoari. *Txepetxen* teorizazio-lanarekin batera, beste ekarpen teoriko batzuk ere izan ziren, eta soziolinguistika ardatz hartu zuen *Bat* aldizkaria ere orduantxe hasi ziren argitaratzen. Haren sortzaileen artean zegoen, hain justu, euskararen aldeko mugimenduko pertsona esanguratsua: Jose Luis Alvarez Enparantza, *Txillardegi*.

Nolanahi ere, euskararen esparrua instituzionalizatu eta gero, eta esparru berria gero eta konplexuagoa bihurtu ondoren, frankismo-amaierako urteetan eremu politikoa eta kulturala dinamizatzen zuten gizarte-sare aktibo haiek desegiten joan ziren pixkanaka. Eta, aldi berean, esparru politikoarekin lotura formalik ez zuten euskararen beste alderdi batzuk azaleratzen hasi ziren berriro. Beraz, 50eko hamarkadan abertzaletasun iraultzailearen diskurtsoko naziotasun-elementu nagusi bihurtu zena, euskara, aldarrikapen politikoekiko nolabaiteko autonomia eskuratzeko hasi zen pixkanaka; eta, era berean, kolektibo bateko kide sentiarazteko betetzen zuten funtzio biltzailea ahulduz joan zen denborarekin (Tejerina, 1992: 6).

#### **4.2. Diskurtso abertzalearen ñabardurak euskararen funtzioaz**

Testuinguru hartan, besteak beste, eragin handiko bi faktore nabarmendu behar genituzke: alde batetik, euskararen mesedetan jardun zuen aurreko urteetako hizkuntzaren politizazioa indarra galtzen hasita zegoen; eta, bestetik, soziolinguistikaren eremutik zetozen ekarpen teorikoek euskararen egoera irauli egin behar zela aholkatzen zuten. Faktore haien eraginez, sektore euskaltzaleek galtzeko arrisku larrian zen hizkuntza gisa irudikatu zuten euskara, eta egoera hartatik ateratzeko modu bakarra botere politikoaren babesa izatea zela ondorioztatu zuten. Helburu orokorrak ere aldatu egin zituzten: ordura arte ezagutza zuten

helburu, euskara ikastea edo irakastea, alegia; aurrerantzean, ordea, erabilera lehenetsi zuten, hizkuntzak jakiteko ez ezik, erabiltzeko direla jakinik. Euskara interes politikoen gainetik jarri behar zutela erabaki zuten, funtsezko gaia hori baitzen:

Euskalduntasunak ez du oraindik formulazio politiko independenterik erdietsi. Egoera honetatik irteteko giltza hori eraikitzea da. Eta, horretarako, euskaldunek atomizatzen dituzten formulazio politikoen ikuspegi faltsuak alde batera utzi behar dituzte, (...) eta nazio euskalduna berrezartzea beste edozein helbururi lehenesten dion ikuspegi berri baten baitan bildu behar dira (Sanchez-Carrion *Txepetx*, 1987: 273).

Sektore euskaltzaleen eskaeren aurrean, baina, diskurtso abertzaleak maiz ez zekien nola erantzun. Izan ere, berez, abertzaleen masa soziala kohesionatzeko ahaleginean zebilen etengabe, baina bien bitartean jardun horretan oztopo gaindiezinekin egiten zuen topo. Hortaz, kontraesan haien erdian, pixkanaka, alderdi abertzaleak, teoriarik esaten zutenari muzin eginez, jarrera pragmatikoagoak hartzen hasi ziren hizkuntzari zegokionez. Bide horretan, euskararen aldeko beren diskurtso teorikoari ñabardurak egiten hasi ziren, gizartearen errealitate soziolinguistikoki erreparatu behar ziotela argudiatuz (Zabalo, 2006: 86).

Maila sinbolikoan, dena den, betiko diskurtsoari eusten zioten oraindik; euskaltzaleen aldarrikapenak babesten eta bere egiten jarraitzen zuten alderdi abertzaleak. Erakundeek zein gizarte-mugimenduak euskararen erabilera bultzatzeko dinamika jarri zituzten abian. Baina ahalegin haiek ez zuten esperotako emaitzarik ekarri. Eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa hartaraturik, gehiengo erdaldun elebakarraren aurrean, nolabait, etsita, erakunde abertzaleak jarrera malguga erakutsi zuten nazioaren gaineko diskurtsoa praxian betetzeko garaian (Zabalo, 2006: 86). Norabide horretan, hizkuntzaren eta kulturaren garrantzia ahultzen joan zen, pixkanaka, abertzaleen diskurtsoan, eskaera *formalki* politikoagoen mesedetan.

Horren aurrean, mugimendu etnolinguistikoko militanteek hizkuntzaren aldeko diskurtsoa sustatzen eta zabaltzen jarraitu zuten, eta ordura arte helburu politikoekin erabat lotuta egonagatik ere, hainbat sektoretan hizkuntzaren aldeko eskariak aldarrikapen *formalki* politikoagoei gailendu zitzaizkien. Esparru politikoaren eta linguistikokoaren ordura arteko batasuna hausten hasi zen, nolabait. Horrela, hainbat sektoreentzat, aldarrikapen politikoak gorabehera, Euskal Herri euskalduna lortzea bihurtu zen abertzaletasunaren egiteko nagusia (Zabalo, 2006: 85).

#### **4.3. Ñabarduren aurrean, hizkuntzaren garrantzia azpimarratzen duten iritzi-joerak**

Esan berri dugunez, 50eko hamarkadako abertzaletasunak bere jardun teorikoaren eta praktikoaren erdigunean jarri zuen faktore linguistikoa, baina denborarekin indarra galduz joan zen. Maila sinbolikoan oraindik ere sinbolo gisa zuen indarrari eusten zion arren, diskurtso teorikoan, pixkanaka, ahulduta gertatu zen euskararen funtzioa. Eta maila praktikoan ere, pixkanaka, 50eko diskurtsoaren eragina gero eta txikiagoa bihurtu zen. Hain zuzen ere, jardun praktikoak erakusten zituen diskurtso abertzalearen gabeziak han eta hemen; agerian geratzen

baitzen ez zuela jarrera oso zorrotzik agertzen bere aldarrikapenak betetzeko orduan. Haren ordeaz, hizkuntza-faktoreak indarra galdu ahala, azken hamarkadotan, lurraldearen eta borondatearen faktoreak indartuz joan dira diskurtso abertzalean.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bilakaera horretan adostasun osorik egon zenik. Alderantziz, hasieratik beretik, sektore euskaltzaleak kritiko agertu ziren diskurtso abertzalearen bilakaera harekin, eta jarrera haren kontra eginez, kargu hartu zieten alderdi abertzaleei. Sektore haien iritzian, euskararen berreskurapen-prozesua motelegia zen eta geldotasun hura, besteak beste, alderdi abertzaleen eraginkortasun ezari, eta konpromiso eta kontzientzia faltari leporatzen zioten; instituzioetan zeuden alderdi abertzaleei, nagusiki. Euskarak eta euskal kulturak, biziko baziren, berehalako esku-hartzea behar zutela uste zuten; beste helburu batzuek baldintzatu gabeko eta konplexurik gabeko esku-hartzea behar zuen izan gainera, lehentasun osoa euskararen berreskuratzeari emango ziona. Ez zuten beste modurik ikusten XX. mendearen bigarren erdian, kultura minorizatuen desagertzeko arriskua gauza jakina zen garaian, euskararen etorkizuna bermatzeko. Horregatik, euskararen aldeko gizarte-mugimenduko erakunde askok 50eko eta 60ko hamarkadetako paradigma abertzalea berreskuratu nahi zuen eta euskara, berriro ere, diskurtso abertzalearen erdigunean jarri: alegia, abertzaletasunak euskal identitate kolektiboaren berezitasunean hizkuntzari oinarritzko funtzioa eman zion paradigmari eutsi eta paradigma horrekiko modu koherentean jardun.

Ahots kritiko haien artean, sektore abertzale eta euskaltzale bat nabarmenduko dugu, lehendabizi. Hiru sektore bereiziko ditugu artikuluan. Saillkapen orok ñabar-durak galtzeko arriskua dakarrela jakin arren, eta lehendabiziko bi joeren artean marra garbirik ezartzea zaila dela jakin arren, hiru joera bereizten ausartu gara. Joxe Azurmendi filosofoa koka genezake lehendabiziko joeran: 2010ean Lorea Agirre kazetariak egin zion elkarrizketa bateko hitzak aipatuko ditugu jarraian. Nazio politikoa eta kulturala elkarri lotuta dauden egitateak direla gogorarazten digu bertan:

Beraz, herri bat zer den galdetzen dugunean, horrek bere memoria historikoa dauka; lana, tradizioak, ohiturak, dantza eta kantak, mitoak, eta hori dena biltzen duena hizkuntza dela azken finean, esan genezake. Honi batzuetan kultur nazioa ohi deritza mugaketa arriskutsu batekin —arriskutsua nazio politikoari kontrajarri nahi bazaio—, edozein politikatan funtsezkoa izango den elementu asko baitago nazio kulturalean, lan harremanetatik famili harremanetaraino eta hizkuntzatik moralera, ohitura eta balioetara. Nazio kulturala eta nazio politikoa txanponaren bi aurpegiak dira, ez bi txanpon<sup>2</sup>.

Norabide berean, Joxe Manuel Odriozolaren aipu bat gehituko diogu Azurmendirenari. Mugimendu abertzalearen eta euskaltzalearen bat-egite erreal eta orekatua aldarrikatzen du Odriozolak:

Euskalgintzaren identitate-oinarriak —hizkuntza, kultura, hezkuntza, historia, literatura...— aintzat hartzen ez dituen politika-bidea bururik gabeko jarduna da, egitura makroen aldaketa-egarriak guztiz bidezkoak balira ere. Beste horrenbeste esan dezakegu alderantziz ere. Kulturalismo hutsaren bidea, asmoak asmo, gizarte-

---

2. Joxe Azurmendiri elkarrizketa (ik. Agirre, 2010: 187).

sareen hartu-emanetan euskaltasuna txertatzeko gaitasunik eta ahalmenik ez duen jokaera denez, boluntarismoz jositako talde murriztuen bazter-estrategia besterik ez da (Odriozola, 2002: 81).

Koldo Izagirrek, bere aldetik, hizkuntzaren ikuspegi instrumentalista kritikatzeko digu hurrengo pasartean. Abertzaleen artean nagusitu den hizkuntza-ikusmoldearekin kezkatutik ageri zaigu:

Hizkuntza tresna bat besterik ez da, informazio sistema hutsa, abertzaleentzako. Trukagarria zaie. Zer axola du hizkuntza bat edo bestea, baldin eta hartan edo honetan esaten duguna gure nazioaren onerako bada? Ez dira Sabino Aranaren garaiko kontuak, bide luzea egin du pentsamendu honek (Izagirre, 2010: 200).

Izagirreraren iritziz, jarrera utilitarista horrek tresna huts gisa hautematen du hizkuntza: «Utilitaristak tresna hutsa bilakatzen du hizkuntza, identitate emailea direla oharteman gabe, jakin barik, edo ukatuz» (Izagirre, 2010: 200-201).

Zentzu berean, ezker abertzaleak askotan kritikatu izan du Eusko Alderdi Jeltzalearen jardunbidea, euskararen berreskurapenerako instituzio autonomikoetan urte luzez hartu dituen neurriak ez direlako eraginkorrak izan haren ustez. Euskararen egoera erreala kontuan hartuko luketen plangintzak eskatu izan dizkie erakundeei maiz, egiazko normalizazioa helburu luketen plangintzak (Agirre, 1989). Eskakizun horien erakusgarri, Iñaxio Agirreraren, Karmele Aierberen eta Mikel Galartzaren hitzak aipatuko ditugu jarraian. Irlandan gaelikoak izan zuen bilakaeraren gaineko hausnarketa egiten dute bertan, eta Irlandako adibidea hemengoarekin alderatzen dute:

Irlandan, independentziaren ondotik, eskoletan gaelikoa erakusten hasi ziren eta horri esker, gaieraz moldatzeko gaitasuna handitzen joan zen hogeitabi urtean. Hizkuntzaren erabilera soziala ez zen neurri berean hazi, ordea, eta hiru hamarkada pasatu eta gero gaitasuna beheraka hasi zen. EAEko 25 urteotako emaitza eskasek eta joera negatiboek Irlandako prozesu hori orotaratzen diote ezker abertzaleari (In Odriozola, 2008: 197).

Euskararen geroa erabat bermatuko ez lukeela jakin arren, Paulo Iztueta irakasleak eta ikertzaileak argi azaldu izan du euskararen iraupenerako ezinbestekoa dela balizko euskal estatu baten babesa. Euskal estatua eta hizkuntzaren biziraupena lotuz, hurrengo pasartea ere egokia da euskaltzaleen eta abertzaleen arteko lotura babesten dutenen iritziei gehitzeko:

Lortu beharko litzatekeena da euskaltzaleok eta abertzaleok batera jokatzeko nazio-proiektu horri buruz. (...). Nahi badugu eta ez badugu, aldeak alde, euskaltzaleok eta abertzaleok, baldin eta euskal kausa eta, honen barruan euskararena, aurrera atera nahi badugu, batera jokatzera kondenatuak gaude, azpiraturik gauzkatzen bi Estatuek areago zapaldu besterik ez gaituzte egingo eta. Euskal gizartearen kontsentsua edo adostasuna hortxe kokatzen dut nik: etxekoen artean (1993: 54).

Eta nazio-proiektuan batera ekiteaz gainera, hona hemen proiektu horrek jarraitu beharko lukeen xedea: «Nazio-proiektu amankomun horren helburu nagusia, lehena, hizkuntz berreskurapena izango litzateke eta helburu horri dagokion neurriko hizkuntz plangintza egitea, euskarak euskal lurralde osoan normalkuntza lor dezan» (*ibid.*, 54).

Ildo berean, eta lehen iritzi-multzo honekin amaitzeko, Euskal Herrian Euskaraz erakundeko kide gisa Maddalen Ezkerrak eta Iñaki Fernandezek idatzitakoa ekarriko dugu hona. Herri bakoitzari hizkuntza bat dagokiola aldarrikatzen dute bertan, eta hizkuntzaren eta lurraldetasunaren arteko lotura bereizezina dela defendatzen dute:

Euskal Nazioak euskalduna izan behar duelakoan gaude, Herri bati hizkuntza bat baitagokio. (...). Euskara eta lurraldetasuna ezin dira berezi, euskara eta subiranotasun politikoa berezi ezin daitezkeen moduan, eta lurraldetasuna eta subiranotasuna gai politikoak dira bete-betean (1995: 49-50).

Orain arte aipatu ditugun iritziak jardun kulturalaren eta politikoaren arteko bat-egitearen aldekoztat har ditzakegu, nolabait. Iritzi-esparru horrekin estuki lotuta, abertzaletasunaren baitako bigarren joera bat nabarmenduko dugu orain: sarritan «kulturalista» deitu izan zaiona. Euskara eta euskal kultura lehenesten ditu joera horrek helburu politikoagoen aurrean. Joera horren barruan, diskurtso landua du, esaterako, Jon Sarasua soziologoak eta bertsolariak. Haren iritzian, hizkuntza da nazioaren ardatza, eta ez lurraldea. Sarasuak honako metafora hauek erabiltzen ditu bere idatzietan: «aitaren etxea» nazio baten lurraldea, egestura politikoa, edo administrazioaren eta erakundearen esparrua izendatzeko; eta «amaren sua» nazio baten hizkuntza-komunitatea eta identitate kulturala izendatzeko. Haren mezuaren muina zera litzateke: egitura politikoarekin ala gabe, euskal komunitateak, biziraun nahi badu, ezin duela sekula euskal nortasunaren ikuspegia ahaztu.

Nik aitaren etxea herri honen egituraketa politikoari deitzen diot eta batzu [sic] edo denok egituraketa horri buruz gatazka eta eztabaidan ari diren, ari garen bitartean, guri, amaren suari, amonaren sukaldeari eustea dagokigu. Amaren sukaldea gure hizkuntz komunitatearen ezaugarria da. Aitaren etxea herri-egitura da; hori edukiko dugu ala ez. (...). Ahal bada etxe baten barruan eta etxe hori eraiki behar bada eraikiko dugu. (...). Baina etxearen gorabeherarekin suaren perspektiba galdu gabe (1996: 27).

Azkenik, hirugarren iritzi-multzo bat ere aipa daiteke: berez, bertan kokatu ditugun idazleek beren burua abertzaletasunetik at (edo ez zehazki abertzaletasunean) kokatzen badute ere, garrantzitsua iruditzen zaigu joera hori ere aipatzea. Abertzale (edo abertzale bete-betean) sentitzen ez diren euskaltzaleak sartuko genituzke bertan. Artikuluaren hasieran aipatu dugun tradizio euskaltzale «ez politikoarekin» lotu genezake, nolabait; 50eko hamarkadaz geroztiko hizkuntzaren eta abertzaletasunaren erabateko bat-egiteak ezkutuan utzi zuen tradizioarekin, alegia. Anjel Lertxundi idazlea aipa genezake, beharbada, joera horretan. Lertxundik idatzia du euskaldun fededunak kristaua ez zen euskalduna onartzen ez zuen bezala, egun, abertzale euskaldunak ez duela abertzale sentitzen ez den euskaltzalea onartzen:

(...) bada abertzalea ez den euskaltzalerik ere. Garai bateko euskaldun fededun hura gaiztoa baldin bazen euskaldun fedegabeekin, gaur nagusi den euskaldun abertzale binomioa ez da hura baino zintzoagoa eta zuzenagoa abertzale sentitzen ez direnekiko edo abertzaletasuna bizitzeko modu atzerakoiekiko oso kritikoak diren euskaltzaleen aurrean (1998: 20-21).

Bernardo Atxagaren iritzia gehituko diogu Lertxundirenari. Hasier Etxeberriak 2002an egin zion elkarrizketako pasartea dugu azpikoa. Subiranotasunaren garrantzia onartuta ere, gizartean adostasun handiagoa biltzen duten proposamenak ditu nahiago Asteasuko idazleak, alegia, bere ustez, kulturaren alorrekoak:

Hortxe kokatzen naiz ni orain, zeren subiranotasuna garrantzizkoa izanda ere ez zait iruditzen independentzia politikoki onuragarria izango litzatekeenik. Nahiago ditut formula ahulagoak, kontsensu handiagoa eduki ditzaketen horietakoak. Jarrera indartsuak nik beste alor batean nahi nituzke: kulturarenean. (...). Geure buruaren jabe, zertarako? (...) Nik nahiago dut benetako nortasun bat, kulturaren oinarritutakoa, eta ez hainbeste pasaportearen araberkoa (in Etxeberria, 2002).

Iritzi bertsuan koka genezake Ramon Saizarbitoria idazlea ere. Hasier Etxeberriak egin zion elkarrizketako pasarte honekin amaituko dugu abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren baitako joerei eta iritziei egin diegun gainbegiratua:

Nik berriz nahigo dut enbaxadarik gabeko Euskadi euskaldun bat, Euskadi independente erdalduna baino (in Etxeberria, 2002: 251).

## 5. Ondorioak

50eko hamarkadatik aurrera abertzaleen artean nagusitu zen nazio-diskurtsoak hizkuntza hartu zuen naziotasun-oinarri, eta, ondorioz, ia erabateko batasuna lortu zuen abertzaletasunaren eta euskaltzaletasunaren artean. Baina 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hasierako urteetan sektore abertzale batzuek zalantzan jarri zuten teorizazio hori, eta zalantzan jartze horrek tirabira sortu zuen mugimendu abertzalean eta euskaltzalean. 70eko hamarkadaren amaieran abertzaletasuna eta mugimendu etnolinguistikoa eremu publikoan agertzen hasi zirenean, eta egoera berrirako politika- eta kultura-estrategia zehazteari ekin ziotenean, gero eta desadostasun handiagoak azaleratu ziren pixkanaka. Azken batean, frankismo-garaiko aldarrikapenetan lortutako batasuna hautsi egin zen.

Azken hamarkadotan, hainbat sektore abertzalek euskararen egoera ikusita, zalantzan jarri du identitate kolektiboaren kohesiorako euskarak elementu sinboliko gisa izan dezakeen gaitasuna. Eta, pixkanaka, nazioaren gaineko diskurtso abertzalean lurraldearen, borondatearen eta herritartasunaren gisako faktoreak gailenduz joan zaizkio hizkuntzarenari.

Baina, hain justu, diskurtso abertzalea hizkuntzarekiko jarrera pragmatikoagoa hartzen hasi denean, ñabardurak egiten hasi denean, hainbat sektore euskaltzaleren ezinegona azaleratu zaigu; abertzaletasunari konpromiso eta kontzientzia linguistiko eskasa egotzi izan diote sektore horiek, teorian esandakoa praxian ez betetzea. 50eko hamarkadatik aurrera nagusitu zen hizkuntza- eta lurralde-abertzaletasun paradigmara itzultzeko beharra aldarrikatu izan du batek baino gehiagok: hots, naziozintza politikoaren eta kulturalaren arteko bategite erreala eta orekatua ezinbestekoa dela. Edo, bestela esanda, euskal nazioaren eraikuntzan pauso esanguratsuak emateko *conditio sine qua non* edo derrigorrezko baldintza dela euskaltzaleek eta abertzaleek norabide berean arraun egitea.

Nazio politikoaren eta kulturalaren arteko loturaren beharra azpimarratzen duen joeraren ondoan, euskalgintza lehenesten duen ikuspegirik ere agertu zaigu. Estructura politikoa onuragarritzat jota ere, hizkuntzak eta kulturak identitate kolektiboan duten egitekoa aldarrikatzen digu iritzi horrek: alegia, estructura politikoa gorabehera, kultura-nortasunari eta hizkuntzari eusteko lanean jartzeko arreta.

Bi horiez gain, hirugarren iritzi-talde bat ere aipatu dugu. 70eko hamarkadako testuinguruan izandako aldaketa politikoek, pixkanaka, euskal *intelligentsiaren* baitan beste joera bat ere azalarazi zutela egiaztatu dugu: beren burua abertzaleztat jotzen ez duten euskaltzaleena, hots, abertzaletasunik gabeko euskaltzaleatasunarena. 50eko abertzaleatasun iraultzailearen formulazio teorikoak eta praktikokoak kontzientzia linguistikoaren eta kontzientzia politikoaren artean egiten zuen etengabeko lotura ahulduz joan ahala, honako beste diskurtso hau ere azaleratuz joan da: sentimendu euskaltzalea izan bai, baina abertzaleen helburuekin bete-betean bat egiten ez duen joerarena.

Hortaz, 50-70eko hamarkadetan hizkuntza-sinboloaren eta euskal nortasun politikoaren artean elkar elikatze-prozesua eragin zuen diskurtso bakar eta bateratu batetik, hots, abertzaleatasunaren eta euskaltzaleatasunaren artean ia erabateko elkarketa lortu zuen diskurtso batetik, diskurtso-ugaritze bat etorri zela ondorioztatu dezakegu. Gertaera hori 70eko testuinguru politikoan izandako aldaketekin lotu behar genuke. Izan ere, 70eko hamarkadan abertzaleatasuna eta mugimendu etnolinguistikoa plaza publikora atera ziren eta, pixkanaka, estrategia politikoa eta kulturala zehazterakoan nolabaiteko tirabirak agertu ziren. Ondorioz, 80ko hamarkadatik aurrera, lehen batasuna zegoen lekuan, hainbat joera azaleratuz joan direla ikusi dugu. Joera horiek nolabait antolatzearen, hiru multzotan sailkatu ditugu: helburu kulturalen eta politikoaren arteko sinbiosia aldarrikatzen dutenena, batetik; euskararen berreskuratzea beste edozein helburu politikoren aurrean lehenesten dutenena, bestetik; eta egungo diskurtso abertzalearekin bat egin ez arren, sentimendu euskaltzalea dutenena, hirugarrenik.

Bukatzeko, esan dezagun, abertzaleatasunak euskal nortasunaren baitan herritarrak biltzeko sinbolo-mailara eraman zuen hizkuntzak, euskarak, testuingurua aldatu ondoren, nolabaiteko autonomia lortu duela helburu *formalki* politikoa-goetik eta, ondorioz, ez dela frankismo-garaiko iritzi-batasunik hizkuntzaren eta abertzaleatasunaren arteko harremanaren nolakotasunaz; alegia, diskurtso abertzaleak hizkuntzari aitortu behar dion pisuaz. Batzuek elementu osagarria dela defendatzen duten bitartean, beste batzuek hizkuntzak naziotasunean duen ardatz-izaera aldarrikatzen dute diskurtso abertzalearentzat. Eta, paradoxikoki, beste hainbatentzat behinola diskurtso abertzaleak funtsezko osagaia bihurtu zuen hizkuntza-sinboloak, orain, eremu *formalki* politikoengandik autonomia lortu eta lehenetsi beharreko elementua behar luke izan.

## Bibliografia

- Agirre, I. (1989): "Euskararen egoera eta normalkuntzarako klabeak", *Ele*, 5, 9-47.  
Agirre, L. (2010): "Joxe Azurmendi: 'Oso untzi hauskorreko argonautak gara euskaltzaleok'", *Hegats*, 45, 183-214.

- Amonarriz, K. eta Arruti, I. (1998): "Euskararen aldeko Mugimendu Sozialak gaur egun", in J. Intxausti, *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, UPV/EHU, Leioa, 147-184.
- Arana, S. (1978): *Obras escogidas: antología política*, Haranburu, Donostia.
- Armstrong, J. (1982): *Nation before Nationalism*, University of North Carolina Press, Chapel Hill-NC.
- Azurmendi, J. (1979): *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Hordago, Donostia.
- Basterretxea, I.; Aldekoa-Otalora, A.; Gorostiaga, I. eta Juaristi, P. (1997): *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzailereren ahotan (1960-1990)*, Labayru ikastegia, Bilbo.
- Billig, M. (1995): *Banal Nationalism*, Sage, Londres.
- Bourdieu, P. (1977): *La reproducción, elementos para una teoría del sistema de enseñanza*, Laia, Bartzelona.
- , (1999): *Meditaciones pascalianas*, Anagrama, Bartzelona.
- Casanova, I. (2007): *ETA 1958-2008: medio siglo de historia*, Txalaparta, Tafalla.
- Clark, R. (1981): "Language and Politics in Spain's Basque Province", *West European Politics*, **4**, 85-103.
- Connor, W. (1998): *Etnonacionalismo*, Trama, Madril.
- Conversi, D. (1990): "Language or race?: the choice of core values in the development of Catalan and Basque nationalisms", *Ethnic and Racial Studies*, **13** (1), 50-70.
- Elorza, A. (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937: (de los "euskaros" a Jagi Jagi)*, Haranburu, Donostia.
- Etxeberria, H. (2002): *Bost idazle: Hasier Etxeberriarekin berbetan*, Alberdania, Irun.
- Ezkerra, M. eta Fernandez, I. (1995): "Euskararen gizarte mugimendua eta euskararen normalkuntza", *Bat*, **16**, 49-55.
- Fernandez, I. (1994): *Oroimenaren hitza: ikastolen historia (1960-1975)*, UEU, Bilbo.
- Fusi, J. P. (1984): *El País Vasco: pluralismo y nacionalidad*, Alianza, Madril.
- Gurrutxaga, A. (1990): *La refundación del nacionalismo vasco*, UPV/EHU, Bilbo.
- Ibero, Aita Ebanjelaria (1979): "Ami vasco", in F. Krutwig, *La nueva Vasconia (547-577)*, Ed. Vascas, Donostia.
- Izagirre, K. (2010): *Autopsiarako frogak, artseniko aztarnak gure hizkuntzan*, Susa, Iruñea.
- Iztueta, P. (1993): "Hizkuntza eta boterea", *Bat*, **9**, 45-55.
- Krutwig, F. [Sarrailh de Ihartza, Fernando] (1963): "Vasconia", in *La Nueva Vasconia*, Ed. Vascas, Donostia.
- Larrinaga, A. (1996): "Diskurtsoaren interpretazio markoak", *Inguruak*, **15**, 155-178.
- Larronde, J.C. (2005): "La aparición del nacionalismo", in M. Goyhenetche, *Historia general del País Vasco. A las puertas de la sociedad moderna III*, Txartalo, Donostia, 485-493.
- Lertxundi, A. (1998): "Teilatupe batean", *Talaia*, **3**, 6-25.
- Letamendia, F. (1994): *Historia del nacionalismo vasco y de ETA. ETA en el franquismo (1951-1976)*, R&B, Donostia.
- Odriozola, J.M. (2002): *Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak*, Iruñea, Pamiela.
- , (2008): *Abertzaleak eta euskara, edo nazio euskaldunaren gainbehera*, Elkar, Donostia.
- Perez-Agote, A. (1987): *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*, CIS/Siglo XXI, Madril.
- Rocher, G. (1977): *Introducción a la sociología general*, Herder, Bartzelona.
- Sanchez-Carrion Txepetx, J.M. (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, Elkar, Donostia.
- Sarasua, J. (1996): "Helburuak eta epeak jartzea ona da, antsietatea ez ordea", *Elkarri*, **17**.
- Smith, A. D. (1997): *La identidad nacional*, Trama, Madril.
- , (2000): *Nacionalismo y Modernidad*, Istmo, Madril.
- , (2004): *Nacionalismo. Teoría, ideología, historia*, Alianza, Madril.

- Tejerina, B. (1992): *Nacionalismo y lengua, los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*, CIS/Siglo XXI, Madril.
- , (1999): “El poder de los símbolos. Identidad colectiva y movimiento etnolingüístico en el País Vasco”, *Reis*, **88**, 75-105.
- Todorov, T. (2010): *Nosotros y los otros: reflexión sobre la diversidad humana*, Siglo XXI, Madril.
- Zabalo, J. (2006): “Nacionalismo vasco: el discurso teórico sobre la nación y su reade-cuación en la práctica”, *RIPS*, **5 (1)**, 83-94.



